

**B****BEGIRALEKUKO GOTORLEKUA**
EL BALUARTE DEL MIRADOR

Mendiko gotorlekurik zaharrenetako bat da, itsasoa eta hiria zaintzeko plataforma izan zenaren gainean kokatuta. XVII. mendearan amaieran gotorleku bihurtu zen eta 1727an garatu zuten, beste zenbait eraikinekin batera, itsas frontea indartzeko.

Una de las fortificaciones más antiguas del monte, ubicada sobre lo que durante siglos fue una plataforma de vigilancia del mar y de la ciudad. A finales del siglo XVII fue convertida en baluarte y en 1727 fue desarrollado junto a otras edificaciones para reforzar el frente de mar.

**E****MENDEBALDEKO ITXITURA**
CIERRE DEL OESTE

Gotorleku multzo bat da, hiru plataformaz eta harresi batez osatua, eta Villaturiel ingeniariak XVI. mendean mendebaldetik mendia itxeko pentsatu zuen harresia baino mendebalderago dago. Geroztik egin diren eraberritzeak direla eta oso bestelakotua ageri da, hala ere. Beheko defentsak (Damen Bateria) eta goiko plataforma (Santiago Bateria) elkarrekin lotzeko egin zuten, horrela portua eta badia babesteko.

Es un grupo de fortificaciones formado por tres plataformas y un muro que se sitúa más al oeste que la muralla proyectada en el siglo XVI por el ingeniero Villaturiel. Muy transformado por intervenciones posteriores, supone la unión entre las defensas bajas (Batería de las Damas) y la plataforma superior (Batería de Santiago) para la defensa del puerto y la bahía.

**I****GOBERNADOREAREN BATERIA**
BATERÍA DEL GOBERNADOR

Gobernadorearen, Printzearen edo Printzesaren baratzea ere deitzen zaio. XVIII. mendean eraiki zuten, lurreko frontea babesteko, eta XIX. mendean hobetu egin zuten eta artilleriaz hornitu, itsas frontea ere babesteko. Bi kokaleku ditu: goi-bateria, zaharrena, eta behe-bateria, ondorenean su-sektorea hobetzeko eraikia.

Conocida también con el nombre de huerto del Gobernador, del Príncipe o de la Princesa. Fue construida en el siglo XVIII para atender el frente de tierra. En el siglo XIX, al presentarse la necesidad de tomar en consideración el frente del mar, fue modificada y mejorada en cuanto a su artillado. Tiene dos emplazamientos: la batería superior, la más antigua, y la batería baja, construida para mejorar el sector de fuego.

**L****DAMEN BATERIA**
BATERÍA DE LAS DAMAS


Spannocchi ingeniariak bateria hori proiektatu zuen, Santa Klararen garitak ordura arte hartzen zuen tokian. 1765ean eraiki zuten, eta Villaturielen mendebaldeko harresia eta Spannocchiren harresi berria lotzen zituen. XIX. mendearan amaieran, errege-salbak jotzeko bateria gisa erabili zuten.

El ingeniero Spannocchi proyectó esta batería en el lugar que, hasta entonces, ocupaba la garita de Santa Clara. Construida en 1765, unía la muralla oeste de Villaturiel con la nueva muralla de Spanocchi. A finales del siglo XIX fue empleada como batería de salvos reales.

**N****ITSASALDEKO HARRESIA**
MURALLA DEL MAR


XVI. mendean Donostiak balio estrategiko berezia hartu zuen, eta horrenbestez, hainbat gotorleku eraiki zituzten eta herria bera eta Urgull mendia harresiz inguratzeko barruti bakar bat sortu zuten. Hobekuntza horien emaitza da Itsasaldeko harresia, kaia eta herrirako sarrera babesteko sortu zena. Gaur egun Portaletas izenez ezaguna da bertako atea.

En el siglo XVI San Sebastián cobró un singular valor estratégico, por lo que se construyeron fortificaciones en el monte y se creó un recinto amurallado que integraba monte y villa. Fruto de estas actuaciones es la Muralla del Mar, único vestigio de las murallas que defendían el sector del puerto. La Puerta de ese lienzo de muralla actualmente se conoce como Portaletas.

**C****INGELESEN HILERRRIA**
CEMENTERIO DE LOS INGLESES

Urgull Mendiko Ipar isurialdean dago, mendia bere erdialdeko altueran inguratzen duen bidearen ondoan, gutxi gorabehera. Izen hori eman zaio bertan Lehen Karlistaldian hil ziren zenbait buruzagi eta ofizial ingeles hilobiak daudelako, baita Independentziaren Gerran hildako beste batzuen hilobiak ere.

Situado en la vertiente Norte del monte Urgull, junto al camino que rodea el mismo a mitad aproximadamente de su altura. Se llama así porque aquí se encuentran varias tumbas de jefes y oficiales británicos que murieron en la Primera Guerra Carlista formando parte de la legión auxiliar británica y otros que habían participado anteriormente en la Guerra de la Independencia contra los franceses.

**F****SANTA KLARA BATERIA**
BATERÍA DE SANTA CLARA

XVIII. mende hasieran eraiki zuten, Damen Bateria eraiki ondoren. Bi bateriek Santa Klararen hornabekea osatzen zuten. Dirudienez, porturako sarrera babesteko, eta, ondoren, itsas frontea babesteko erabili zuten.

Construida en la primera parte del siglo XVIII, después de la Batería de las Damas. Junto con esta formaba el llamado hornabeque de Santa Clara. Se destinó inicialmente a la defensa de la entrada del puerto y más adelante también al frente de mar.

**J****BARDOKASEKO BATERIA**
BATERÍA DE BARDOCAS

Itsasaldeko guda-lerroari solik begira dagoen mendiko baluarte bakarra da, lehorretzeak saihesteko eta itsontziei tiro egiteko. Kota txikia zuenez, oso eraginkorra zen helburuei arraseko tiroa botatzeko, baina itsasotik eta lgeldo menditik erraz asko ikusten zen. Bere eraikuntza 1693an hasi zen, XVIII. mendean handitu zuten eta XIX. mendean indartu, obus bateria bat bertan jarri.

Es la única batería de Urgull dedicada exclusivamente al frente de mar. Además de impedir el desembarco en esta zona, poseía muy buena posición para el tiro bombardeo sobre las cubiertas de los barcos, aunque con el inconveniente de resultar muy vulnerable desde el monte Igeldo. Su construcción se inició en 1693, fue ampliada en el siglo XVIII y reforzada en el siglo XIX superponiéndole una batería de obuses.

**M****SPANNOCCHI HARRESIA**
MURALLA SPANNOCCHI

XVII. mendean, mendiaren itxitura-gotorlekua eraikitzen hasi ziren, Spannocchi ingeniari militararen proiektutik abiatuta. Proiektu horrek Santa Klararen dorre zaharra eta Begiralekuko Gotorlekua uztartu behar zituen, baina amaitu gabe geratu zen. Portuko gortina oraindik ere ikusgai dago "apaizen pasealekua" izeneko tokian.

En el siglo XVII se inició la construcción de una ciudadela en el monte, siguiendo el proyecto del ingeniero Spanocchi, que planteaba un cierre desde el antiguo torreón de Santa Clara hasta el Baluarte del Mirador. Parte del proyecto nunca llegó a ejecutarse y sólo se conserva la cortina del puerto, en el lugar conocido como "paseo de los curas".

**D****SANTIAGO BATERIA**
BATERÍA DE SANTIAGO

Erreginaren Bateria edo Kaiko Bateria ere deitzen zaio, kaiko sarreraren aldera tiro egitea baitzuen eginkizun. XVIII. mendean eraikitako artilleria-plataforma, parapeto eta kanoi en multzoa da. XIX. mendeko kanoi en kokalekuen hondarrak ere gorde dira.

Esta batería, conocida también con el nombre de Batería de la Reina o Batería del Muelle, tenía como misión batir la entrada del puerto. Es un conjunto de plataformas de artillería, parapetos y cañones construido en el siglo XVIII. Asimismo se aprecian restos de emplazamientos de cañones del siglo XIX.

**G****NAPOLEON BATERIA**
BATERÍA DE NAPOLEÓN

Frantsesek eraiki zuten hiria okupatzen zuten bitartean, lurreko frontearan eta portuko sarreraren aldera tiro egiteko. 1813ko setioa pasa eta Espainiako, Ingalaterrako eta Portugaleko indarrek gotorlekua berreskuratu zutenean, Wellingtonen bateriaren izena ere eman zioten.

Fue construida por los franceses durante su ocupación de la ciudad para batir el frente de tierra y la entrada del puerto. Al ser recuperada la plaza por las fuerzas españolas y angloportuguesas, una vez levantado el sitio de 1813, se la designó también con el nombre de Batería de Wellington.

**K****BARDOKASEKO ITURRIA**
FUENTE DE BARDOCAS

Pasealeku Berritik XVIII. mendeko iturri honetara irits gaitzeko, oinplano karratua eta bi isurkiko teilatuz estalitako ganga dituen. Jatorrian, Urgulleko instalazio militarrek baino ezin zuten bertara sartu eta erabili; ondoren, Donostiako biztanleei ura eman zien. Gaur egun, bere hodieta batetik ura isurtzen jarraitzen du.

Esta fuente del siglo XVIII, de planta cuadrada y bóveda recubierta con tejado a dos aguas, está comunicada con la ciudad por el Paseo Nuevo. Originariamente era de acceso exclusivo desde las instalaciones militares de Urgull y a ellas daba servicio, y posteriormente suministró agua a la población de San Sebastián. A día de hoy, sigue fluyendo agua de uno de sus caños.

BEGIRALEKUAK
MIRADORES

- Begiralekuaren Bateria. Ekialdera. Batería del Mirador. Al este.
- Gobernadorearen Bateria. Hegoaldera. Batería del Gobernador. Al sur.
- Bardokaseko Bateria. Iparraldera. Batería de Bardocas. Al norte.
- Santa Klara Beheko Bateria. Mendebaldera. Batería de Santa Clara Baja. Al oeste.

URGULLEKO ONDARE HISTORIKOA ETA NATURALA EZAGUTZEKO IBILBIDEA
RECORRIDO PARA CONOCER EL PATRIMONIO HISTÓRICO Y NATURAL DE URGULL



URGULL

Ezagutu Conoce

ONDARE HISTORIKOA
ETA NATURALA
PATRIMONIO HISTÓRICO Y
NATURAL

INFORMAZIO PRAKTIKOA INFORMACIÓN PRÁCTICA

MENDIKO ORDUTEGIA HORARIO MONTE

Urgull mendirako sarbideak honako ordutegia du:

- Maiatzaren 1etik irailaren 30era **08:00-21:00**
- Urriaren 1etik apirilaren 30era **08:00-19:30**

El acceso al monte Urgull tiene el siguiente horario:

- Del 1 de mayo al 30 de septiembre **08:00-21:00**
- Del 1 de octubre al 30 de abril **08:00-19:30**

BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS

San Telmo Museoa Urgull hobeto ezagutzeko bisita gidatu zerbitzua eskaintzen du. Informazioa eta erreserbak: stm_erreresbak@donostia.eus edo **943-481561** (astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara)

El Museo San Telmo ofrece un servicio de visitas guiadas para conocer mejor Urgull. Se pueden concertar mediante este correo electrónico: stm_erreresbak@donostia.eus o llamando al **943-481561** (de lunes a viernes de 12:00 a 14:00).

URGULL APP-A URGULL APP

Ibilbide hau URGULL app-an ere aurki dezakezu. Dohainik jaitsi daiteke Google Play eta App Storetik eta datuak kontsumitu gabe erabiltzeko aukera ematen du.

Encontrarás este recorrido también en la app URGULL. La puedes descargar gratuitamente desde Google Play o App Store y utilizarla sin consumir datos.



Antolatzailea / Organiza:



Laguntzailea / Colabora:



Urgull mendia Donostiako erdialdean kokatutako gune naturala da, itsasoaren eta hiriaren gainean dagoen begiralekua, bere historiaren lekuko dena. Hiriko parajerik aipagarrienetako bat da, paisaia eta ondare aldetik balio handiko ingurunea. Mapa honek gaur egun arte iraun duen bide eta gotorlekuz osatutako egitura aurkezten du eta bertako txokoetan galtzeko ibilbide erraz bat proposatzen du, ondare historikoari eta naturalari bereziki errepreatuta.



El Monte Urgull es un enclave en pleno centro de San Sebastián, atalaya sobre el mar y la ciudad, testigo de su historia. Este plano presenta la estructura de caminos y fortificaciones que han llegado hasta nuestros días y propone un recorrido de dificultad baja para perderse en sus rincones, prestando especial atención al patrimonio histórico y natural.

GEOLOGIA GEOLOGÍA

Antzinan Kontxako badia Igeldotik Uliaraino hedatzen zen eta bertan bi uharte zeuden: Santa Klara eta Urgull. Urumea ibaia urteetan eramandako materialak bere bokalean uzten joan zen, korrante eta olatuen artean pilatuz, eta denboraren poderioz Urgull lehorrarekin lotu zuen tonbolo bat sortu zen.

Igeldo, Urgull, Uliá eta Santa Klara mendiak itsaso sakon baten hondoan sortu ziren, duela 50 milioi urte baino gehiago. Hasieran bloke bakarra zen lursailak hiru haustura handiren eragina izan zuen iparraldetik hegoaldera: Urumea ibaiaren egungo ibilguan eta uhartearen bi aldeetan.

Antiguamente, lo que era una amplia bahía entre Igeldo y Uliá estaba protegida por dos islas: Santa Clara y Urgull. Los materiales arrastrados durante años por el río Urumea se fueron depositando en su desembocadura, amontonándose, entre corrientes y oleajes, terminando por crear un tómbolo que unió Urgull a tierra firme.

Los montes Igeldo, Urgull, Uliá y la isla de Santa Clara se formaron en el fondo de un mar muy profundo hace más de 50 millones de años y constituían una unidad rocosa. Esta unidad se vio fragmentada por la actividad de tres grandes fracturas del terreno, orientadas de Norte a Sur: en el cauce actual del río Urumea y a ambos lados de la isla.

NATURA NATURALEZA

Urgullen kokapenak, itsasoari zuzenean irekitako eremuekin eta babes handiagoko beste batzuekin, itsasertzeko landare tipikoak eta beste ingurune batzuetako espezieak garatzeko aukera ematen du. Aurki dezakegun paisaia ere desberdina da: tamaina handiko zuhaitzen itzalpean paseatzeko aukera ematen duten baso-eremuak eta espezie apaingarrien landaketak dituzten soropil zabaleko eremuak.

La disposición de Urgull, con zonas directamente abiertas al mar y otras más resguardadas, permite el desarrollo de plantas típicas del litoral y especies propias de otros ambientes. El paisaje combina desde zonas boscosas de relativa densidad por las que se puede pasear bajo la sombra de árboles de gran porte hasta zonas abiertas de césped con plantaciones de especies ornamentales.



BEGIRALEKUAK MIRADORES

Antzina gotorleku militarrek zirenak, hiriaren eta bere paisaiaren begiraleku pribilegiatuak dira egun. Mendiko begiratoki ezberdinetatik ikuspegi paregabeak ditugu: hegoaldera hiri-bilbea garai batean dunak eta padurak zeuden tokian; iparraldera itsaso irekia; mendebaldera badiaren panoramika ederra Igeldo eta Santa Klara uhartearekin eta ekialdera Zurriola hondartza, sorkuntza artifizialekoa, Monpas eta Uliá mendia.

Los baluartes militares de antaño son hoy privilegiados miradores de la ciudad y su paisaje. Desde diferentes puntos del monte podemos contemplar la trama urbana sobre lo que en otro tiempo fueron dunas y marismas al Sur; el mar abierto hacia el Norte; una hermosa panorámica de la bahía con Igeldo y la isla Santa Clara hacia el Oeste y la playa de la Zurriola, de creación artificial, Monpas y el monte Uliá hacia el Este.



HARRESIAK MURALLAS

1180 inguruan Nafarroako Antso VI.a Jakituna erregeak sorrera-forua eman zion Donostiari. Hiribildu berria inguratzen zuen hesiak foruaren aplikazio-eremua fisikoki mugatzen zuen. XVI. mendearen erdialdean, itsas- eta merkataritza-hiribilduak balio estrategiko berezia hartu zuen gotorleku gisa. Mendeetan zehar, gaztelua ixteko eta hiriko harresien sistemarekin batzeko etengabeko egitasmoak jarraitu ziren, amaitu gabe geratu eta herritarren hamarrenen parte handia xahutzen zituzten proiektuak. Horien artean aipatzekoak dira Villaturiel en lehen itxiera, 1547koa, edo Tiburcio Spannochchi-ren proiektu konplexua, 1595 urtekoa, harresia indartzea barne hartzen zuena.

En torno a 1180 el monarca Sancho VI el Sabio de Navarra otorgó el fuero fundacional a San Sebastián. La nueva villa estaba rodeada por una cerca que delimitaba físicamente el ámbito de aplicación del fuero. A mediados del siglo XVI la villa marítima y comercial cobró un singular valor estratégico como plaza fuerte. A lo largo de los siglos se sucedieron continuos proyectos para cerrar el castillo y unirlo al sistema de murallas de la ciudad, proyectos que quedaban inacabados y absorbían buena parte de los diezmos de la población. Destacan entre ellos el primer cierre de Villaturiel, de 1547, o el complejo proyecto de Tiburcio Spannochchi, de 1595, que incluía el refuerzo de la muralla.



A

SAN TELMO MUSEOA MUSEO SAN TELMO

Ibilbidea San Telmo Museoa hasten da. San Telmo Museoa Euskal Herriko museorik zaharrena da, bere jatorritik gaur arte euskal gizarteari begirada aberats eta garaikidea eskaintzen diona. Egund, XVI. mendeko komentu dominikarrari balioa gehitzen dion abangoardiako handitze arkitektoniko bat du museoa.

El itinerario arranca en el Museo San Telmo, el más antiguo del País Vasco, que ofrece una mirada rica y contemporánea sobre la sociedad vasca desde sus orígenes hasta hoy. Actualmente, una ampliación arquitectónica de vanguardia que añade valor a la sede del museo, un antiguo convento dominico del siglo XVI situado en pleno corazón de San Sebastián.

H

MOTAKO GAZTELUA CASTILLO DE LA MOTA

Lehen aipamenen arabera mendiaren tontorrean lau angeluko harkaitz-gaztelu klasiko bat zegoen; kantoi bakoitzean dorre bana zuen, baita Omenaldiaren Dorre bat ere. Santxo Handia Nafarroako Errege zen garaian eraiki zuten, 1150 urtean gutxi gorabehera. XVI. mendean Gaztelako gortearen mende zegoenean erabat eraberritua izan zen; artilleriaz hornitu eta kubo bat, defentsa-gerrikoa eta plataforma eraiki zituzten. Orduzkeror eraldaketa ugari jasan ditu, mendiko gainontzeko gotorlekuak bezala.

Las primeras referencias nos remiten a un castillo roquero en la cima del monte, de forma cuadrangular, con cuatro torreones en sus ángulos y una torre del homenaje construidos en torno a 1150, en época de Sancho el Mayor, rey de Navarra. La reforma del siglo XVI, esta vez bajo dominio castellano, lo dotó de artillería, con la construcción de un cubo, un cinturón defensivo y la plataforma. Como el resto de fortificaciones del monte, sufrió numerosas transformaciones posteriores.